

**1.- Edukia zehaztu:** II. Errepublika eta Gerra Zibila Laudion izango da landuko dugun edukia.

**2.- Testuingurua azaldu:**

- Audio memoria elkarte
- Udal artxiboa
- Hemeroteka digitalak

**3.- Balizko proiektuen zerrenda osa ezazu:**

- Audio memoriako kideek hitzaldi bat emango digute, egiten ari diren lanaren inguruan
- Udal artxiboan ataldeka gai ezberdinen inguruko ikerketa lan txiki bat egingo dute, bertako dokumentazioa begiratzuz.
- Taldeka irakasleak markatutako puntuei jarraituta ikasleek hemeroteka digitalean informazioa bilatuko dute.

**4.- Proiektuaren definizioa:**

Proiektu honen bitartez II. Errepublika eta Gerra Zibila herrian sakondu nahi da.

**5.- Proiektua:**

- Taldeka, hemeroteka digitalean begiratzuta, Laudiori buruzko berriak (1931- 1937 artekoak) aterako dituzte, talde bakoitzak puntu bat garatuko duenari.
- Udal artxiboan 1931-1937 arteko informazioa bilatuko dugu, herrian gertatu zenaren berri jakiteko.
- Gartzten Iñarriguren bideoa ikusi eta bere esperientzia pertsonalaren inguruko hausnarketa bat egin.
- Audio memoriaren hitzaldia.
- Web orrialde batean taldeek lortutako lana jartzea.

**6.- Egitekoa zehatz ezazu:**

a) Taldeka hemeroteka digitalean begiratzuta Laudiori buruzko berriak (1931- 1937 artekoak), aurkitu behar dituzue, puntu hauetan oinarrituta: 1931ko estatutua, 1933ko estatutua eta bere ondorioak, gerraren hasiera, gerraren bilakaera.

- Baliabideak:

[www.hemeroketa.com](http://www.hemeroketa.com)

<http://prensahistorica.mcu.es/es/consulta/busqueda.cmd>

<file:///M:/Gerra%20Zibila/Laudio/Prensa/Historikoa/webs/hemeroketa.com%20-%20Euskal%20Prensaren%20Lanak.htm>

b) Udal artxiboan dauden dokumentuetan oinarrituta ikasleak, berriro ere taldeka daudelarik, puntu ezberdinen inguruko informazioa aurkituko dute: 1931ko estatutua, 1933ko estatutua eta bere ondorioak, gerraren hasiera, gerraren bilakaera, gerraren amaiera eta geroko aldaketak.

- Baliabideak Udal dokumentuak, Udal bilera aktak.

c) Gartzten Iñarriguren audioarraren bideoa ikusi eta gero bere esperientziaren inguruko hausnarketa bat egin beharko da galdera hauei erantzunda:

c-1) Armada frankista Laudion sartu ondoren Gartzenen anaiari gertatu zitzaiona nola baloratuko zenuke?

c-2) Zure ustez zergatik erabaki zuen Gartzenen aitak herrian geratzea? Zergatik esan zion Gartzenen anaiari bertan geratu behar zuela eta Gartzeni aldiz kanpora joan behar zuela?

c-3) Gartzenen anaiaren bizipena zelan baloratzen duzu?

c-4) Nola baloratzen duzu Gartzenek soldaduskatik libratzeko hartu zuen erabakia?

- Baliabidea:

<http://www.youtube.com/watch?v=tnTBZ2ywN0o>

d) Audio memoriako kideen hitzaldia, orain arte ikusi eta ikertu duguna tartekatzeke.

e) Taldekideen artean web orrialde bat sortzea

### **7.- Ikasketa prozesua:**

Ikasleak taldeka daudenez hasieran bakoitzak zer egingo duen zehaztu beharko da koadro batean, eta saio bakoitzean ikasle bakoitzak bertan egindakoa zehaztu beharko du (eduki dituen arazoak edo zailtasunak ere adieraziz)

Ikastalde bakoitzak tokatu zaion puntuari buruzko aurkezpen lan bat egin beharko du.